

Ondorengo erroaldean aditzera ematen den dirusarreraren egoera-orrian zenbateko bereko dirusarrerak lortuz sortzen dira kredituok:

PROGRAMA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
95040	492	3.252.737

1998ko abuztuan eta irailean behiaren okela interbenitzaerakoan izandako gastuak kitatzeko erabiliko dira fondoak.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunetik hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko azaroaren 24an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri
Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industri, Nekazaritza
eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

JUSTIZIA, EKONOMIA ETA LAN ETAKO GIZARTE SEGURANTZA

Zk-5669

328/1998 DEKRETUA, abenduaren 1ekoa. Dekretu honen bidez, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea sortu da.

Aginte Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak organo tekniko gisa eratu ditu auzitegiko medikuntzako erakundeak. Erakunde horiek auzitegiko anatomia erakundeak eta auzitegiko medikuen klinikek orain arte betetzen zituzten eginkizunak hartu dituzte beren gain, eta honako helburu hauek dituzte: alde batetik, epaitegiei, auzitegiei, fiskaltzei eta Erregistro Zibileko bulegoiei medikuen peritu-probak —hala proba tanatologikoak nola proba klinikoak eta laboratorio-koak— egiten laguntzea, eta, bestetik, auzitegiko medikuntzarekin zerikusia duten irakaskuntza-lanak eta ikerketak egitea.

Abenduaren 30eko 390/1987 Dekretuaren bidez Justizia Administrazioaren funtzionamendurako balia-

Estos créditos se generan por la obtención de ingresos por el mismo importe en el siguiente estado de ingresos:

PROGRAMA	CONCEPTO	IMPORTE
95040	492	3.252.737

Los fondos se destinarán al pago de los gastos de intervención en carne de vacuno correspondiente a los meses de agosto y septiembre de 1998.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda
y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria,
Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Nº-5669

DECRETO 328/1998, de 1 de diciembre, por el que se crea el Instituto Vasco de Medicina Legal.

La promulgación de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio del Poder Judicial configura los Institutos de Medicina Legal como órganos técnicos, que asumen las funciones hasta ahora atribuidas a los Institutos Anatómico-forenses y las Clínicas médico-forenses y cuya misión es auxiliar a los Juzgados, Tribunales, Fiscalías y Oficinas del Registro Civil mediante la práctica de pruebas periciales médicas tanto tanatológicas como clínicas y de laboratorio, así como realizar actividades de docencia e investigación relacionadas con la medicina forense.

Su creación, según lo establecido en el art. 504 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judi-

bideak bere gain hartu zituenez, (Justizia Administrazioaren funtzionamendurako baliabide materialen eta ekonomikoen gaineko eginkizunak eskualdatzeari buruzkoa da dekretu hori), Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea sortzea, honako arau hauetan ezarritakoaren arabera: Aginte Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 504. atalean, azaroaren 8ko 16/1994 Lege Organikoan, eta martxoaren 1eko 386/1996 Errege Dekretuaren 1. eta 2. ataletan (Auzitegiko Medikuntzako erakundearen erregelamendua onartu zen dekretu horren bidez).

Orobat, martxoaren 26ko 59/1996 eta 60/1996 Dekretuek (Justizia Administrazioaren giza baliabideak eskualdatzeari buruzkoak dira dekretu horiek) auzitegi-mediku transferituen plantilak antolatzeke aukera ematen dute, baita plantila horiek Auzitegiko Medikuntzako erakunde sortu berriari adskribatzeko ere, horretarako behar diren legezko txostenak eginda.

Halaber, otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuan (Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren atalaren egitura organikoa eta funtzionala arautzen du dekretu horrek) eta maiatzaren 14ko 107/1996 Dekretuan (141/1995 Dekretua aldatu zen dekretu horren bidez) ezarritakoaren arabera, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari dagokio Justizia Administrazioaren langileen gaineko eskuduntzak kudeatzea eta Justizia Administrazioa baliabidez hornitzea, batez ere egoitza judizialerako sistema informatikoak, plangintza, obrak, ekipamendua eta antolaketa-sistemak kontuan izanik.

Dekretu horietan auzitegiko medikuntzako erakundearen kopuruari eta kokapeneri buruz ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren egoitza zein lurraldetan dagoen, auzitegiko medikuntzako erakunde bat sortu beharko da, nahitaez, lurralde horretako hiriburuan; beste horrenbeste egin beharko da Auzitegi Nagusiko salak hartzen dituzten hiriburuetan, eta, nahi izanez gero, beste hiri batzuetan ere horrelako erakundeak sortu ahal izango dira. EAEko egungo ezarpen judizialaren ondorioz, eta EAEko Auzitegi Nagusiaren egoitza Bilbon dagoenez, Auzitegiko Medikuntzako lurralde erakunde bat sortu beharra dago Bilbon.

Lan kopurua eta EAEko lurraldeko biztanle-dentsitatea kontuan izanik, oraingo nahikoa dugu EAEko lurraldean Auzitegiko Medikuntzako erakunde bakarra, EAEko jurisdikzio-organoko guztiei zerbitzuak eskaintzeko. Hala eta guztiz, beharrezkotzat jotzen dugu lurralde bakoitzean azpiegiturak eratzea ere, jurisdikzio-organoei lurralde bakoitzean dituzten premiei eta eskakizunei bizkor erantzun ahal izateko; horrenbestez, hiru zuzendariordetza sortu ditugu.

Auzitegiko Medikuntzako Erakundea da Estatuan sortu den lehenbizikoa; hortaz, behin jardunean hasten

cial, en la redacción dada por la Ley Orgánica 16/1994, de 8 de noviembre, y en los artículos 1 y 2 del Real Decreto 386/1996, de 1 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de los Institutos de Medicina Legal corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco, en virtud de la asunción de medios para el funcionamiento de la Administración de Justicia que tuvo lugar mediante el Decreto 390/1987, de 30 de diciembre, sobre traspaso de funciones en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

Asimismo los Decretos 59/1996 y 60/1996, de 26 de marzo, sobre traspasos de los medios personales al servicio de la Administración de Justicia, posibilita la estructuración de las plantillas de los médicos forenses transferidos y su adscripción al nuevo Instituto de Medicina Legal que se crea, previos los informes legales que sean precisos.

A su vez, al Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, en virtud de las funciones atribuidas por los Decretos 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional de Dicho Departamento y Decreto 107/1996 de 14 de mayo, de modificación del anterior, le corresponden las competencias sobre personal al servicio de la Administración de Justicia provisión de medios para el funcionamiento de la Administración de Justicia, con particular atención a los sistemas informáticos, planificación, obras, equipamiento e implantación de sistemas organizativos en las sedes judiciales.

En cuanto a su número y ubicación la mencionada normativa establece la obligatoriedad de la creación de un Instituto en aquella capital de provincia en la que tenga su sede el Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma y en aquellas capitales en las que tengan su sede Salas de dicho Tribunal, siendo potestativa su creación en otras ciudades. La actual demarcación judicial de la CAPV, y la radicación de la sede del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, hacen que resulte imprescindible la creación de un Instituto Regional de Medicina Legal con sede en dicha ciudad.

El volumen de trabajo y la densidad poblacional del territorio de la CAPV, avalan la creación, por el momento, de un único Instituto de Medicina Legal que preste servicio a todos los Organos jurisdiccionales de la CAPV y cuyo ámbito territorial de actuación sea dicha Comunidad Autónoma. Sin embargo, para dar cobertura de manera ágil a las necesidades y a las demandas ordinarias de los Organos jurisdiccionales por razón del territorio, parece necesaria igualmente la creación de infraestructuras territoriales que en este caso se articulan como Subdirecciones.

Dado que la creación de este Instituto constituye una experiencia pionera a nivel del Estado y que la acomodo-

denean, baliteke, hiru urteren buruan, erakundearen eginkizunak eta egitura berraztertu eta egokitu behar izatea, eskakizun berriei erantzun ahal izateko.

Horiek horrela, Justizia Ministerioak eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak aldeko txostena egin dute, eta ordezkari gehien dituzten sindikatuekin negoziatu dugu. Horrenbestez, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak proposatuta, eta Jaur-laritzaren Kontseiluak 1998ko abenduaren 1ean eginda-ko bileran aztertu eta onartu zuelarik, honako hau

XEDATU DUT:

1. atala.- Sortzea.

Dekretu honen bidez, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea sortu da, AMEE hemendik aurrera. Erakunde horrek Bilbon izango du egoitza, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jardungo du.

2. atala.- Izaera eta eginkizunak.

AMEE organo teknikoa da. Bere lurraldeko epai-barrutietako epaitegiei, auzitegiei, fiskaltzei eta Erregistro Zibilari laguntzea da erakunde horren helburua, eta, horretarako, medikuen peritu-probak -hala proba tanatologikoak nola proba klinikoak eta laboratorikoak- egingo ditu. Horrez gain, AMEEK auzitegiko medikuntzarekin zerikusia duten irakaskuntza-lanak eta ikerketak ere egin ahal izango ditu. Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundean ezin egingo da proba tanatologiko edo perizial pribaturik.

Eginkizun teknikoei dagokienez, AMEEK autonomia dauka, eta zientzia-ikerketarako egokitzat jotzen dituen arauen ildotik egingo ditu txostenak.

AMEE Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari adskribatuta dago, eta jarduteko gastu guztiak Sailaren aurrekontuetan ageriko dira.

3. atala.- Egitura.

AMEEK hiru zuzendariordetza ditu, zuzendariordetza horiek Bilbon, Donostian eta Gasteizen dute egoitza, eta Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban jardungo dute, hurrenez hurren.

AMEEK egitura zentralizatua dauka, eta EAEko auzitegi-mediku guztiak erakunde horretan dute destinoa. Hortaz, auzitegi-medikuek jurisdikzio-organoetan eta mediku bakarreko auzitegi-agrupazioetan zeukaten destinoa desagertu egin da.

Zuzendariordetzek ohiko jardunean autonomia badaukate ere, AMEEK batasunaren eta uniformetasunaren irizpideetan oinarrituta jardungo du. Legezko tramiteak eginda, AMEEen auzitegiko laboratoriorerbitzu

dación de las funciones que tenían encomendadas a la estructura diseñada puede necesitar de revisiones y ajustes, una vez en funcionamiento, y en el plazo de tres años, se podrá proceder a la revisión del mismo para acomodarlo a las necesidades reales demandadas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social previo informe favorable del Ministerio de Justicia, y del Consejo General del Poder Judicial, previa negociación con las organizaciones sindicales más representativas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 1 de diciembre de 1998

DISPONGO:

Artículo 1.- Creación.

Se crea el Instituto Vasco de Medicina Legal, -en adelante I.V.M.L.-, con sede en Bilbao y cuyo ámbito territorial de actuación es el de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2.- Naturaleza y funciones.

El I.V.M.L. es un Órgano técnico cuya misión es auxiliar a los Juzgados, Tribunales, Fiscalías y Registro civil de los partidos judiciales de su ámbito territorial, a través de la práctica de pruebas periciales médicas, tanto tanatológicas como clínicas y de laboratorio. Asimismo el I.V.M.L. podrá realizar actividades docentes y de investigación relacionadas con la medicina forense. En la sede del Instituto no podrá realizarse ninguna actividad tanatológica ni pericial privada.

En sus funciones técnicas tiene carácter independiente y emite sus informes de acuerdo con las reglas de investigación científica que estime adecuadas

El I.V.M.L. está orgánicamente adscrito al Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social y los gastos de todo tipo requeridos para su funcionamiento figurarán en los presupuestos de dicho Departamento.

Artículo 3.- Estructura.

El I.V.M.L. consta de tres Subdirecciones, con sede en Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz, cuyo ámbito territorial de actuación es el de los Territorios Históricos de Bizkaia, Gipuzkoa y Alava respectivamente.

El I.V.M.L., tiene una estructura centralizada estando destinados todos los médicos forenses de la CAPV en el mismo, lo que conlleva la desaparición del actual régimen de destino de éstos en órganos jurisdiccionales o en agrupaciones de forensías.

No obstante su división en Subdirecciones y la autonomía en el funcionamiento ordinario de las mismas, de acuerdo con el carácter centralizado del mismo, actuará con criterios de unidad e uniformidad. Estará do-

bat eratuko da, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan jardungo baitu.

Bizkaiko eta Gipuzkoako zuzendariordetzetan auzitegiko patologia-zerbitzuak eta auzitegiko mediku-klinikak eratu dira. Gainera, laguntza emateko zerbitzu administratiboak egongo dira zuzendariordetza bakoitzean.

4. atala. – Auzitegiko Laboratorio Zerbitzua.

Euskal Autonomia Erkidegoko organo judizialek eskatutako analisi biologikoak, klinikoak eta toxikologikoak egitea dagokio Auzitegiko Laboratorio Zerbitzuari. Nolanahi ere, Toxikologia Erakundeak izango du aginpidea bere espezialitatearekin zerikusia duten gaian.

Aurreko puntuan ezarritakoa alde batera, zuzendariordetza bakoitzean oinarritzko probak egiteko eta eguneroko praktikarako behar diren baliabideak eta instalazioak egongo dira. Dena den, proba horiez gainera beste batzuk ere egin ahal izango dira.

5. atala. – Auzitegiko Patologia Zerbitzuak.

Auzitegiko Patologia zerbitzuek, honako eginkizun hauek bete behar dituzte, zeinek bere lurraldean:

a) Legean oinarrituta, bortxazko heriotza eta ustezko krimen guztien mediku-ikerketak egitea, epaileak hala agintzen duenean.

b) Hilotzak eta gorpuen hondarrak identifikatzea.

Bizkaiko eta Gipuzkoako zuzendariordetzetako Auzitegiko Patologia zerbitzuetan eta Arabako Zuzendariordetzan azterketa erradiologikoak, azterketa kimikoak eta ikerketa kriminalistikoko azterketak egiten dira, eta Erradiologia- eta Fotografia-Unitateak ere eratu ahal izango dira.

6. atala. – Auzitegiko Mediku Klinikako zerbitzuak.

1. – Auzitegiko mediku klinikako zerbitzuek, honako eginkizun hauek bete behar dituzte, zeinek bere lurraldean:

a) Legean oinarritutako mediku-peritajeak egitea.

b) Lesionatuak aldizka begiratzea eta gorputzeko lesioak neurtzea, baldin eta lesio horiek auzi-prozeduretan kontuan hartzekoak badira.

c) Epailearen esku dauden atxilotuei mediku-laguntza edo zaintza eskaintzea.

2. – Auzitegiko mediku kliniketan hiruna sekzio daude: Medikuntza Orokorra, Traumatologia eta Psikiatria.

3. – Medikuntza Orokorreko sekzioetan jasoko dira haien lurraldeko epai-barrutien eskaera guztiak, eta destinoa sekzio horietan duten auzitegi-medikuek beteko

tado, previa realización de los tramite legales precisos, de un Servicio de laboratorio Forense, que extiende su ámbito de actuación a toda la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En las Subdirecciones de Bizkaia y de Guipúzcoa se crean servicios de Patología Forense y de Clínica Médico-Forense. Cada una de las Subdirecciones dispondrán, asimismo, de servicios administrativos de apoyo correspondientes.

Artículo 4. – Servicio de Laboratorio Forense.

Al Servicio de Laboratorio Forense le corresponde la realización de los análisis biológicos, clínicos y de toxicología, demandados por todos los órganos judiciales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de las competencias del Instituto de Toxicología que en este sentido actuará como centro de referencia en materias de su especialidad.

Sin perjuicio de lo establecido en el punto anterior, cada una de las tres Subdirecciones estará dotada de los medios e instalaciones necesarias para la realización de las pruebas básicas y de práctica cotidiana que se precisen sin perjuicio de la posibilidad de incorporar la realización de otras.

Artículo 5. – Servicios de Patología Forense:

A los Servicios de Patología Forense les corresponden, en su demarcación respectiva, las siguientes funciones:

a) La investigación médico-legal en todos los casos de muerte violenta o sospechosa de criminalidad, cuando sea ordenada por la autoridad judicial.

b) La identificación de cadáveres y restos humanos.

En los Servicios de Patología forense de las Subdirecciones Bizkaia y de Guipúzcoa así como en la Subdirección de Alava, se realizan los análisis radiológicos, químicos y de investigación criminalística, pudiendo establecerse las correspondientes Unidades de radiología y de Fotografía.

Artículo 6. – Servicios de Clínica Médico forense:

1. – A los Servicios de Clínica Médico forense les corresponden, en su demarcación respectiva, las siguientes funciones:

a) La realización de peritajes médico-legales.

b) El control periódico de los lesionados y la valoración de daños corporales que sean objeto de prácticas procesales.

c) La asistencia o vigilancia facultativa a los detenidos que se encuentren a disposición judicial.

2. – Los Servicios de Clínica-Forense constan de tres Secciones: Medicina General, Traumatología y Psiquiatría.

3. – En las Secciones de Medicina General se recibirán todas las peticiones de asistencia de los partidos judiciales de su demarcación respectiva, realizándose la ac-

dute eskatutakoa; bestela, sekzio espezializatuetara bidaliko da eskaera, sekzioko medikuek txostena edo peritajea egin dezaten. Eskaera sekzio espezializatu batera bidaltzeko arrazoiak azaldu beharko dira, idatzita, eta, bidali ere, kontsulta jakin batzuk egiteko bidaliko da, edo sekzioko espezialistaren ardurapean utziko da eskaera behin betiko.

4.- Auzitegiko mediku-klinikako espezialitate bazuetan medikurik behar ez bada, hitzarmenak egingo dira osasun-zerbitzuetako erakunde publikoekin, espezialitate horiei buruzko peritajeak eta mediku-txostenak egin ahal izateko.

Halaber, proba jakin batzuk egiteko, zerbitzu horiek ez dituzten baliabideak behar izanez gero, osasun-sare publikoaren baliabideak erabiltzeko hitzarmenak egingo dira.

Hitzarmena eginez gero, osasun-zerbitzuetako erakunde izenpetzaileari dagokion kostua ordaindu beharko zaio, tarifa eta prezio publikoei buruz indarrean dauden arauetan ezarritakoaren arabera.

5.- Auzitegiko klinikarik ez duten epai-barrutietan behar adina gela eta baliabide material prestatuko dira, haien demarkazioko oinarritzko azterketak egin ahal izateko.

6.- Auzitegiko Mediku Klinikako Medikuntza Orokorreko sekzioetan izango dute destinoa espezialistak ez diren auzitegi-mediku guztiak.

7. atala.- Zerbitzu administratiboak.

Zerbitzu administratiboak betetzeko eta auzitegi-medikuei laguntzeko moduko giza baliabideen eta baliabide materialen azpiegitura izango du zuzendariordezta bakoitzak.

Zerbitzu horiek, zeinek bere lurraldean, Erregela-mendu Organikoak agindutako eginkizunak bete beharko dituzte. Batez ere, honako eginkizun hauek bete behar dituzte:

- Auzitegi-medikuek egindako txostenak nahiz haiek agindutako agiri administratiboak transkribatu.

- Jendeari lagundu.

- Azterketak-eta egiteko aurretiko zita zerbitzuak eratu eta kontrolatu.

- Auzitegi-medikuak judizioan agertzeko agenda antolatu.

- Artxiiboak eta espedienteak kontrolatu.

- Baliabide materialak aztertu, hornitu eta zaindu.

tividad solicitada por los Médicos-Forenses destinados en el mismo o remitiéndose, en su caso, a las Secciones especializadas para la emisión del informe o peritaje necesario por los facultativos de dicha Sección. Dicha remisión, que deberá realizarse mediante escrito motivado, podrá tener como objetivo la realización de consultas puntuales o la derivación definitiva del expediente para su realización por el especialista.

4.- La realización de peritajes e informes médicos sobre aquellas otras especialidades de las que no sea precisa la existencia de facultativos en los Servicios de clínica médico forense, será concertada con las organizaciones públicas de servicios sanitarios.

Igualmente, para la realización de las pruebas en que sea necesario el concurso de medios distintos a los asignados a estos Servicios, se concertará el acceso a los pertenecientes a la red pública de salud.

Cuando se produzca esta concertación la organización de servicios sanitarios correspondientes percibirá el coste que proceda, de conformidad con las normas sobre tarifas o precios públicos vigentes.

5.- En los partidos judiciales en los que no tengan sus sedes los Servicios de Clínica Forense se habilitarán dependencias y medios materiales suficientes para la realización de las exploraciones y reconocimientos básicos de su demarcación.

6.- En las Secciones de Medicina General de los Servicios de Clínica Médico-Forense estarán destinados todos los médicos-forenses carentes de especialidad.

Artículo 7.- Servicios administrativos.

Cada una de las Subdirecciones está dotada de la infraestructura personal y material adecuada que garantizará la cobertura de los servicios de carácter administrativo auxiliando a los médicos forenses en el ejercicio de sus funciones.

A dichos servicios, en su respectivo ámbito territorial, le están encomendadas las funciones establecidas en su correspondiente Reglamento Orgánico y especialmente las siguientes:

- Transcripción de los informes emitidos por los médicos forenses y de otros documentos de carácter administrativo que le sean encomendados por los mismos.

- Atención al público.

- Establecimiento y control de los Servicios de cita previa para el reconocimiento y demás actuaciones con los interesados.

- Organización de la agenda de comparencias en juicio.

- Control de archivos y expedientes.

- Estudio, provisión y custodia de medios materiales.

8. atala.– Zuzendaritza organoak.

AMEEek zuzendari bat eta hiru zuzendariorde izango ditu. Horiez gain, Zuzendaritza Kontseilu bat ere izango da, zeinak zuzendariaren agindupean jardungo baitu, bere eskumeneko gaietako organo aholku-emai-le moduan.

9. atala.– Zuzendaria:

AMEEko zuzendariak honako eginkizun hauek izango ditu:

AMEE ordezkatzeta.

AMEEren jarduera-plana azaltzea eta Justizi Sailari aurkeztea, hark onar dezan.

AMEEek Euskal Autonomia Erkidego osoan egin beharreko lanen banaketari buruzko proposamena onartzea.

AMEEren menpeko auzitegi-medikuek beren eginkizunak zehatz-mehatz bete ditzatela zaintzea, baita eginkizun horiek taxuz bete ahal ditzaten beharrezko laguntza ematea ere.

Zuzendaritza Kontseiluak guardiako txandei buruz egindako proposamena onartzea, indarrean dauden arauak betez. Proposamen horretan jaso behar da bai jurisdikzio-organoean etengabe egon behar duten medikuen txandak, baita Justizi Administrazioaren gaineko organoetan edozein unetan lantokira joateko prest egon behar dutenenak ere.

Prestakuntza-gaietan behar bezalako harremana izatea Justizi Sailarekin.

Zerbitzuen jarduera administratibo eta laborala egokia dela zaintzea.

AMEEko langile guztiek lan-ordutegia betetzen dutela jagotea eta ikuskatzea.

Interesdunei eta, oro har, jendeari behar bezalako laguntza ematen zaiela begiratzea. Horretarako, zuzendariordetzei jarraibideak eman ahalko dizkio.

Erregelamendu organoetan ezarritakoa betez, AMEEen destinoa duten langileekin zerikusia duten zigor-espedienteak agintari eskudunei egiten hasteko eskatzea.

AMEEren zerbitzuen, lanen eta jardueren urteko txostena Justizi Sailari aurkeztea.

AMEEren urteko aurrekontuaren aurreproiektuaren proposamena egitea eta Justizi Sailari aurkeztea, hark onar dezan.

AMEEko lanpostu-zerrendaren aldaketak proposatzea eta Justizi Sailari aurkeztea.

Justizi Sailari baliabide materialak eskuratzeko proposamenak aurkeztea.

Artículo 8.– Organos de Dirección.

En el I.V.M.L. existirá un Director y tres Subdirectores. Asimismo está dotado de un Consejo de Dirección, que, bajo la dependencia directa del Director tendrá el carácter de órgano asesor en las materias de su competencia.

Artículo 9.– El Director:

Corresponden al Director del I.V.M.L. las siguientes funciones:

Ostentar la representación del I.V.M.L.

Formular el plan anual actuación del I.V.M.L. y presentarlo al Departamento de Justicia para su aprobación.

Aprobar la propuesta de distribución de trabajos a realizar en todo el ámbito del I.V.M.L..

Velar por el exacto cumplimiento de las funciones de los médicos forenses dependientes del I.V.M.L., así como prestarles la cooperación necesaria par el correcto ejercicio de las mismas.

En el marco de la normativa vigente, aprobar la propuesta de distribución de los Turnos de guardias presentadas por el Consejo de Dirección, tanto en los órganos jurisdiccionales que exijan la presencia continuada como las de disponibilidad del resto de los Órganos de la Administración de Justicia.

Mantener la debida relación con el Departamento de Justicia en materia de Formación.

Cuidar en el orden administrativo y laboral del buen funcionamiento de los servicios.

Vigilar e inspeccionar el cumplimiento del horario de trabajo de todo el personal del I.V.M.L.

Velar por la debida atención a los interesados y al público en general, pudiendo dictar instrucciones al efecto a las respectivas Subdirecciones.

Solicitar a las autoridades competentes la incoación de expedientes disciplinarios con relación al personal destinado en el I.V.M.L., en los términos previstos por los reglamentos orgánicos.

Presentar ante el Departamento de Justicia la memoria anual de los Servicios, trabajos y actuaciones del I.V.M.L.

Elaborar y presentar ante el Departamento de Justicia la propuesta del anteproyecto de presupuesto anual del I.V.M.L. para su aprobación.

Proponer las modificaciones de la relación de puestos de trabajo del I.V.M.L. y elevarlas al Departamento de Justicia.

Elevar al Departamento de Justicia las propuestas de adquisición de medios materiales.

Zuzendaritza Kontseiluak proposatutako Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko kideak izendatzea.

AMEEren ikerketa- eta irakaskuntza-jarduerak proposatzea, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordearen iritzia jaso ondoren.

Ikerketaren emaitzetarako egokitzat jotzen diren kasuetan, Toxikologia Erakundearen lankidetzat eskatzea.

Zuzendariordeak ordezkatzeko hiru kasu hauotan: beren lanpostuak hutsik daudenean, lantokitik kanpo daudenean edo gaixo daudenean. Era berean, zerbitziburuak ere ordezkatzeko dituzte kasu horietan, baldin eta zuzendariordeek, beste ordezkari bat egiten ari direla-eta, zerbitziburuaren eginkizunak ezin badituzte bete.

10. atala.- Zuzendariordeak.

Hona hemen zuzendariordeen eginkizunak:

AMEE Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkatzeko.

Zuzendariari bere eginkizunak betetzen laguntzea.

Zuzendariordetzaren urteko jarduera-plana egitea eta Zuzendaritza Kontseiluari aurkeztea.

Beren zuzendariordetzaren lurraldean egin beharreko lanen banaketa onartzea.

Beren zuzendariordetzako auzitegi-medikuen lanak gainbegiratzea.

Beren zuzendariordetzetan egin beharreko guardia-ko txandak proposatzea.

Beren zuzendariordetzaren lurraldean dauden presakuntza-beharrizanak adieraztea.

Beren zuzendariordetzako langileek lan-ordutegia betetzen dutela jakitea eta ikuskatzea, baita antzemandako disfunczioen berri zuzendariari ematea ere.

Balitekenez beren zuzendariordetzaren menpeko langileen jarduerak zigor-espedienteak hasteko modukoak izatea; jarduera horien berri zuzendariari ematea.

Beren zuzendariordetzaren zerbitzuen, lanen eta jardueren urteko lanari buruzko txostena egitea eta Zuzendaritza Kontseiluari aurkeztea.

Beren zuzendariordetzaren urteko aurrekonturako aurreproiektuaren proposamena egitea eta Zuzendaritza Kontseiluari aurkeztea.

Beren zuzendariordetzaren lanpostu-zerrendaren aldatzea proposatzea.

Beren zuzendariordetzaren beharrezkoak diren materialak Zuzendaritza Kontseiluari erosi dituzten eskatzea.

Egokitzat jotzen dituen ikerketa- eta irakaskuntza-jarduerak adieraztea eta zuzendariari proposatzea.

Nombrar a los integrantes de la Comisión de Docencia e Investigación, a propuesta del Consejo de Dirección.

Proponer los proyectos de investigación y actividades docentes del Instituto, oída la Comisión de Docencia e Investigación.

Interesar la colaboración del Instituto de Toxicología en aquellos supuestos que pudiera considerarse conveniente por los resultados de la investigación.

Sustituir a los Subdirectores en caso de vacante, ausencia o enfermedad o a los Jefes de Servicio, en los mismos supuestos, cuando dichas funciones no puedan ser asumidas por aquellos, por tener asumida alguna sustitución de igual carácter.

Artículo 10.- De los Subdirectores.

Corresponden a los Subdirectores las siguientes funciones:

Ostentar la representación del I.V.M.L. en su respectivo ámbito territorial.

Auxiliar al Director en el ejercicio de sus funciones.

Formular y presentar al Consejo de Dirección el plan anual de actuación de la Subdirección.

Aprobar la distribución de los trabajos a realizar en el ámbito de su respectiva Subdirección.

Ejercer las labores de supervisión sobre los trabajos de los médicos forenses de su respectiva Subdirección.

Proponer los turnos de guardias a efectuar en sus respectivas Subdirecciones.

Formular las necesidades de formación en el ámbito de su respectiva Subdirección.

Vigilar e inspeccionar el cumplimiento del horario de trabajo del personal de su respectiva Subdirección, dando cuenta al Director de las disfunciones detectadas.

Informar al Director de aquellas actuaciones del personal dependiente de la respectiva Subdirección, que pudieran ser motivo de la apertura de expediente disciplinario.

Elaborar y presentar ante el Consejo de Dirección la memoria anual de los Servicios, trabajos y actuaciones de la respectiva Subdirección.

Elaborar y presentar ante el Consejo de Dirección la propuesta del anteproyecto de presupuesto anual de la respectiva Subdirección.

Proponer las modificaciones de la relación de puestos de trabajo de la respectiva Subdirección.

Proponer al Consejo de Dirección las adquisiciones de materiales necesarios en su respectiva Subdirección.

Formular y proponer al Director los proyectos de investigación y actividades docentes que se consideren oportunos.

Zuzendaria ordezkatzeari hiru kasuotan: lantokitik kanpo dagoenean, lanpostua hutsik dagoenean, edo gaixo dagoenean. Eginkizun hori AMEEko urte bakoitzean zuzendariorde bati egokituko zaio, elkarren segidan.

Zerbitzuburuak ordezkatzeari hiru kasuotan: lanpostua hutsik daudenean, lantokitik kanpo daudenean edo gaixo daudenean.

11. atala. – Zerbitzuburuak.

Hona hemen zerbitzuburuaren eginkizunak:

Zerbitzuaren funtzionamendua antolatzea, ahalik eta etekin handien lortzeko asmoz eta kide bakoitzaren obligazioak betetzen direla zainduz.

Bere zerbitzuaren jardura koordinatzea eta gainbegiratzea, baita medikuena eta zerbitzuari adskribatutako langileena ere.

AMEEren zuzendaritzak eta zuzendariordetzak emandako jarraibideen berri ematea zerbitzuko kide guztiei.

Beren zuzendariordetzak agindutako bestelakoak.

12. atala. – Zuzendaritza Kontseilua.

1.– Honakook izango dira AMEEko Zuzendaritza Kontseiluko kideak: zuzendaria —kontseiluko burua, alegia—, zuzendariordeak, zerbitzuburuak, eta Bizkaiko Zuzendariordetzako eta Gipuzkoako Zuzendariordetzako auzitegi-mediku bana. Bi mediku horien ordezkariak Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren, diharduten auzitegi-medikuen gehiengoaren botoaz aukeratu beharko dira.

2.– Hona hemen Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizunak:

Zuzendariari aholkuak ematea, bere eginkizunak gauza ditzan.

Zuzendariordetzen jardura-planak berrestea, eta AMEEren urteko plana egitea eta zuzendariari proposatzea.

Zuzendariordetzek onartutako lan-banaketak homogeneoak izan daitezen koordinatzea, lan-banaketa horietan beharrezkoak diren aldaketa-proposamenak egitea eta zuzendariari lan-banaketen proposamena aurkeztea.

Zuzendariordetzek egindako guardiako txandetarako proposamenak koordinatzea, behar bezain homogeneoak izan daitezen, eta zuzendariari aurkeztea, hark onar ditzan.

Prestakuntza-beharren proposamenak behar bezain homogeneoak eta koordinatuak izan daitezen begiratzea eta proposamen horiek zuzendariari aurkeztea.

AMEEko zerbitzuen, lanen eta jardueren txostena urtero egitea, zuzendariordeek aurkeztutako proposamenetan oinarrituta. Justizia Administrazioak ematen

Sustituir al Director en los Casos de ausencia, vacante o enfermedad, recayendo esa función, con carácter anual y sucesivamente en cada uno de los Subdirectores del I.V.M.L.

Sustituir a los Jefes de Servicio en caso de vacante, ausencia o enfermedad.

Artículo 11. – De los Jefes de Servicio.

Serán funciones de los Jefes de Servicio:

Organizar el funcionamiento del servicio, tendiendo a obtener el máximo rendimiento del mismo y cuidando del cumplimiento de las obligaciones de cada uno de sus miembros.

Coordinar y supervisar la actividad de su servicio, así como la de los facultativos y demás personal adscrito al mismo.

Transmitir a todos los miembros del servicio las directrices recibidas de la Dirección y Subdirección del Instituto.

